

WARREN DE LA RUE ASTRONOMOA

Iñaki Azkune


Astronomo britainiar hau 1815. urtean Guernsey-n (Channel Islands-en, Frantziako Cherbourg ondoko irletan) jaio zen urtaririlaren 15ean eta Londresen hil 1889.eko apirilaren 19an. Hil hone-tantxe betetzen da beraz ehunurteu-rrena, eta aitzakia hori medio interes-garria deritzogu bere bizitzaren eta astronomiari egin zizkion ekarpenen xehetasun batzuen berri emateari.

Bere ikasketak Paris-eko Sainte-Barbe kolegioan amaitu ondoren, Warren De la Rue bere aitaren inprimategian hasi zen lanean, eta bertan 1851. urtean eskutitz-azalak egiteko lehen ma-kina asmatu zuen.

1852. urteaz gero, bere indar guz-tiak fotografia astronomikora zuzen-du zituen. Ilargiari argazkiak ateraz-ten lehenengotakoa izan zen, baina egiten zituen argazkiak oso zehatzak zirelako gero hogei aldiz anplifika-tzeko aukera izaten zuen. Horrela era iraunkorrean eta askotan teleskopioz begiratuta baino hobeto ikus zite-keen Ilargia.

1858. urtean, Kew herrian (Lon-dresetik hegoaldera) foteheliografoa asmatu zuen. Diseinu bereziko teles-kopiaoa zen; egunez eguzkiari argaz-kiak ateratzeko moduan prestatuta-koa. Batabestearen ondoren hartuta-ko bi argazki konbinatzen zituen, eta 1862. urtean Londreseko Nazioarte-ko Erakusketan Ilargiaren eta Eguz-kiaren argazki estereoskopikoez arrakasta handia izan zuten.

1860. urtean Espainian erabateko Eguzki-eklipsea ikustera egindako txangoa zela eta Ilargiaren diskotik kanpora ateratzen ziren zorrotada gorriak Eguzkiarenak (eta ez Ilargia-renak) zirela frogatu zuen.



Warren de la Rue

Bi hamarkada lehenago Schwabe-k Eguzkiaren orbanez egindako adieraz-penekin batera, De la Rueren aurkikun-tza hark Astrofisikari hasiera eman ziola esan daiteke. Fisikaren adar hau, Eguzkia aztertuz hasi zen eta gero Secchi-ren espektroskopioaren bidez beste izarrak ikertzeari ekin zioten.

De la Rue ordea, kimika eta elek-trizitateaz ere kezkatua zegoen; lanpara elektrikotako platinozko harizpiez eta gasetako deskarga elektrikoez batez ere. Bateriekin egindako saiakuntzen ondorioz, zilar klorurozko zelulak asmatu zituen.

Londreseko *Royal Society*ko kide au-keratu zuten 1850. urtean eta 1864.ean Erret Domina eman zioten. *Astronomia-ko Erret Elkarte*eko partaide ere ba-zen 1862. urteaz gero. Baita Fran-tziako *Zientzi Akademi*akoa ere. Ar-gitaratu zituen lanetan, *Researches on Solar Physics* izenekoa da aipa-garriena. ●